# errezeta

## Bavarois

**Osagaiak: esnea (litro erdia), bost arrautza gorringo, postreetarako bost xafla, azukrea (125 gr.), kanela eta banila apur bat.**

Bavaroisak paratuko diren moldeak almibarrarekin busti eta gordetzen dira. Bestalde, esnea egosi egiten da, kanela, banila eta azukrearekin batera. Arrautza gorringoak irabiatu egiten dira azukre apur batekin batera, eta gutxika esne egosia botatzen zaio, dena ongi nahastuz. Postreetarako xaflak ur hotzean garbitzen dira, eta ostean, ur berotan urtu, ez gehiegi. Xaflak ere beste guztiarekin nahasten dira. Osagai guztiak ongi nahasten dira beste behin, eta orea moldeetan ipintzen da. Hozkailura sartu, eta egun batez bertan izan. Ondoren moldeetatik atera, eta zerbitzatu.


EGUNKARIA
Bavaroisa hotza zerbitzatzen da mahaira.

## musika

**BURLATA. Indomables.** Gaur, gaueko 21:00etan, Black Rose tabernan.
**ERRENTERIA. Anabel Aldalur eta Aurelio Viribay.** Gaur, 20:00etan, Errenteria Hiria kultur zentroan.
**GASTEIZ. Parra-Gomez bikotea.** Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Vital Kutxa Fundazioaren Dendarabako aretoan.
**Anorexia.** Gaur, 20:30ean, Parral tabernan.
**IRUÑEA. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.** Gaur, 20:00etan, Gaiarre antzokian.
**ZANGOZA. Musika eskolako ikasleen kontzertua.** Bihar, arratsaldeko 19:30ean, Karmengo entzutokian.

## antzerkia

**BILBO. 'Konbat'.** Gaur, 20:30ean, Bilborock aretoan. Maskarada taldearen eskutik.
**GASTEIZ. 'Lazarillo'.** Gaur, goizeko 10:30ean, B. Etxepare antzokian. Achiperre antzerki taldearen emankizuna.
**TOLOSA. 'Trainspotting'.** Gaur, 20:30ean, Elorri tabernan. Juanlu Escudeororen eskutik.

## bertsolaritza

**ANOETA. Anjel Mari Peñagarikano.** Gaur, arratsaldean.
**ELGOIBAR. Juan Mari Narbaiza, German Meabebasterretxea, Juan Mari Areitio eta Ziarda.** Gaur, 14:30ean hasita, Urruzuno, San Pedro, San Migel eta San Lorentzo auzoetan.
**ERRENTERIA. Amaia Agirre eta Jon Martin.** Gaur, 19:30ean, udal euskaltegitik abiatuta.
**IDIAZABAL. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.** Gaur, eguerdian eta bazkalostean.
**ITSASONDO. Mikel Mendizabal.** Gaur, arratsaldean.
**PASAIA. Amets Arzallus eta Sustrai Colina.** Gaur, 18:30ean, Trintxerpeko barrutian. Kalejira Gudarien plazatik abiatuko da.

# hitzaldia

**'Pangea: kontinenteen sakontasunera bidaia II'.** Gaur, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean (19:30ean).


PANGEA ESPEDIZIOA
Pangea espedizioko kideak txalupan, Kaspiar itsasora iritsitakoan (-28 m). Eskuinekoa Ander Izagirre da.

## Pangea espediziokoek Europan, Afrikan eta Asian ikusitakoa, gaur, Donostian

Pangea espedizioak lur azaleko tokirik sakonenak bisitatu zituen duela pare bat urte. Ander Izagirrek, espedizio hartako kideak, kontinenteen sakontasunera eginiko bidaia kontatuko du gaur Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Gaurko hitzaldia aurreko astean egindako baten bigarren partea da.

## hitzaldiak

**BILBO. 'La sexualidad adulta occidental, una subliminacion del deseo; la carencia proyectada; el control social'.** Gaur, 20:00etan, Likiniano infogunean (Ronda, 12). Rebeca Madrazoren eskutik.
**'El futuro de los oceanos'.** Gaur, 20:30ean, Miguel Unamuno paraninfoan (Poza lizentziatua, 1). Jean Michel Cousteauk emana. Hitzaldira joateko beharrezkoa da gonbidapena izatea. Informazio gehiago 94-6017852 telefonoan.
**DONOSTIA. 'Pangea: kontinenteen sakontasunera bidaia II (Europa, Afrika, Asia)'.** Gaur, 19:30ean, Koldo Mitxelenan. Hizlaria: Ander Izagirre. Antolatzailea: Bagera.
**'Jubilacion: oportunidad o conflicto'.** Gaur, 19:00etan, Andia karrikako Kutxa aretoan. Gonzalo Berzosa gerontologoaren eskutik. Nagusilan elkarteak antolatua.
**GASTEIZ. 'La guerra de Irak y la doctrina de Bush'.** Bihar, 19:00etan, Hikaateneoan. Hizlariak: Jon Arregi (Gerrarik Ez taldeko kidea) eta Maite Mayo (kazetaria).
**GETARIA. 'Palestina'.** Hitzaldia eta bideo emanaldia bertan egondako Komite Internazionalisteetako kide baten eskutik. Gaur, 20:00etan, Arralde tabernan.
**IRUN. 'El arte rupreste paleolitico. Un ejemplo concreto: Ekain'.** Bihar, 20:15ean, udaletxean. Jesus Altuna ikertzailearen eskutik.
**LIZARRA. 'Cumplir años y reirse. ¡Que regalo!'.** Gaur, 19:00etan, Kultur Etxean. Fina Sanz psikologoaren eskutik.

## bestelakoak

**DONOSTIA. 'Santa eskean'.** Eskola dantza taldekoak gaur aterako dira, 19:30ean, Urdaneta karrikatik.
**BERMEO. Ikastetxeetako haurren kalejira.** Gaur, 17:00etatik aurrera, herriko karriketan barrena.
**BILBO. Santa Ageda bezpera aterik ate kantuka.** Gaur. Eguerdiko saioa Kafe antzokitik abiatuko da 12:30ean. Toki beretik aterako da arratsaldekoa, 19:00etan.
**IRUN. Kalejira.** Ehun lagun baino gehiagoko abesbatza San Juan plazan hasiko da kantatzen, gaur, 19:00etan.
**ORIO. Kalejira.** Eskolako haurrak kalez kale ibiliko dira gaur kantatzen, 11:00etatik aurrera.

## ikus-entzunezkoak

**ALEGIA. 'Amelie'.** Bihar, 21:30ean, gaztetxean.

## ikastaroak

**DONOSTIA. Euskal dantzen ikastaroa.** Otsailaren 11tik apirilaren 8ra, asteartero, Larrotxene kultur etxean. Prezioa: 12 euro. Izena emateko, 943-481745 telefonora deitu behar da (goizez) otsailaren 7a baino lehen.
**GASTEIZ. Word ikastaroa euskaraz.** Lanean dauden pertsonei zuzendua. Dohainik. Otsailaren 10etik 21era, 10:00etatik 12:00etara. Informazio gehiago *www.loginmedia.net* webgunean eta 945-179151 telefonoan.
**HONDARRIBIA. 'Bruckner: nire oktaba misterio bat da'.** Musika klasikoko ikastaroa. Otsailaren 8an eta 9an, Juan Sebastian Elkano aterpean. Informazioa eta izen ematea, 943-454214 telefonoan.

## erakusketak

**ATARRABIA. Besta Jira Argazki Lehiaketako argazki hautatuen erakusketa.** Kultur Etxean egonen da otsailaren 7a arte.
**BAIONA. 'Ugatza, lumaren kondaira'.** Otsailaren 8a bitartean, Mattin megadendan. Organbidexka Col Libre elkarteak eskainita.
**BARAKALDO. 'Aingeru bat erraursetan'.** Adrian Tylerren argazkiak udalaren erakusketa aretoan izanen dira otsailaren11 arte.
**BARAÑAIN. 'Guarani'.** Medicus Mundi elkartearen argazki erakusketa. Otsailaren 21a arte, Kultu Etxean.
**BILBO. Maite Martinez de Arenaza eta Yunta artisten margolanak.** Otsailaren 18a arte,